

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAN 90 ATERPE KLIMATIKOKO SAREA DAGO

Donostiak aterpe klimatikoko sare bat du herritarrek berotatik babestu ahal izateko, batez ere tenperatura handia den egunetan. Aterpe horien helburu nagusia da beroaren erasana murriztea, bereziki adineko pertsoneri.

Ekologiako zinegotzi Juantxo Marrerok adierazi duenez, "Maiatzetik urrira bitartean erabiltzeko moduan jarrita daude aterpe klimatikoak. Proiekzio klimatikoen arabera, muturreko tenperaturak eta bero-boladak ohikoagoak izatea ekarriko du klima aldaketak, eta gaixotasun eta heriotza tasak handitu egin daitezke horren ondorioz. Aterpe horiek arindu egiten dute beroaren erasana, batez ere adineko pertsoneri".

Kanpoko 53 aterpe eta barruko 36 aterpe dira guztira, eta udalerrri guztian banatuta daude. Kanpokoak, Donostian diren parkeak eta berdeguneak ditugu (300 hektarea), eta, zuhaitzen itzalari esker, beroa erreazago eramateko modua izaten da haietan. Barruko aterpeak, berriz, liburutegiak, kultur etxeak, museoak, kiroldegiak, merkatuak eta elizak berak dira.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Juantxo Marrerok adierazi duenez, "Barruko babeslekuetan, temperatura 26 gradu baino gutxiago izatea gomendatzen da, eta eroso egoteko eta atseden hartzeko baliabide batzuk izatea (eserlekuak, komunak eta iturriak, adibidez). Aterpe horiek kartel bat daukate atean jarrita, erraz ezagutu ahal izateko; eta nornahi sar daiteke, batez ere adineko pertsona, haurra edo arnasketa-arazoren bat izanez gero".

Kanpoko babeslekuak parkeak, leku irekiak edo pasealekuak dira. Zuhaitzei esker, tenperaturak gradu batzuk behera egiten du horrelako lekuetan, eta oinez ibiltzeko alternatiba bat dira.

Bero boladetan, etxetik ez ateratzea da onena, berorik handieneko orduetan behintzat, eta, atera behar izanez gero, itzaletatik ibiltzea. Ingurune urbanizatueta bero handiarekin izaten diren baldintza termikoak baino hobeak eman nahi dituzte aterpe klimatikoek. Liburutegietan, kultur etxeetan, kiroldegietan, museoetan, elizetan, merkataritza-guneetan eta horrelakoetan daude; eta, betiere haien jarduera nagusia eta araudia errespetatu behar da.

Era berean, itzal gehiago edo baldintza termiko hobeak dituzten ibilbideak ere proposatzen dira, kalean ibili behar izanez gero.

MAPA TXIKIA

<https://www.donostia.eus/geozerbitzuak/apps/MapasLigeros/index.html?lang=es&webmap=f3dd6c1752b5407fb8cba1a9f3214f73>